

IRAKASGAIA: *ESPAINIAKO HISTORIA*

MAILA: 2. BATXILERGOA

IKASTURTEA: 2018-2019

IRAKASLEAK: Maite Larrea eta Edurne Beaumont

EDUKIAK:

1. MULTZOA

1. Iberiar Penintsula, lehen gizakietatik monarkia bisigodoa desagertu arte.
2. Erdi Aroa: Hiru kultura eta etengabe aldatzen doan mapa politikoa (711-1474)

2. MULTZOA

3. Monarkia Hispanikoaren eraketa eta haren hedapena munduan zehar (1474-1700)
4. Espainia, Frantziaren itzalpean: lehen borboien erreformismoa (1700-1788)

3. MULTZOA

5. Erregimen Zaharraren krisia: Liberalismoa eta absolutismoa, buruz buru (1788-1833)
6. Estatu liberalaren eraikuntza gatazkatsua (1833-1874)
7. Borboien berrezarkuntza: sistema politiko berriaren ezarpena eta finkapena (1874- 1902)..

4. MULTZOA

8. Berrezarkuntzaren sistemaren krisia eta Monarkiaren eroraldia (1902-1931)
9. Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila nazioarteko krisiaren testuinguruan (1931-1939).

5. MULTZOA

10. Francoren diktadura (1939-1975)
- 11.. Espainiako normalizazio demokratikoa eta European sartzea (1975-1982)

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Zuzentzeko irizpideak unibertsitatean sartzeko frogan eskatzen diren irizpide berberak erabiliko dira:

- Prozesu historikoak ongi azaltzeko gaitasuna (beren garaian kokatuz, erlazionatuz, zergatiak eta ondorioak azalduz, konklusioak ateraz...);
- Ideiak eta kontzeptu historikoen erabilera egokia, ulertzen direla erakutsiz.
- Sintesisirako gaitasuna ere baloratukoa da, funtsezkoa dena azaltzeko gaitasuna erakutsiz

AZTERKETAK.

-Azterketa notaren oinarria izango da (%100),

-Azterketak BEUSEk (EVAU delakoak) duen eskema berbera jarraituko du:

1. zatia: 35 terminoen artean, 5 definitu beharko dituzte (4 puntu)

2. zatia: 3 galderen garapena (6 puntu)

-Azterketa bakarra egongo da ebaluazio bakoitzean, baina irakaslearen esku gelditzen da bertze azterketa egitea (adibidez, 3. ebaluazioan), baita egiteko data ere. Bi azterketa eginez gero, azterketa horien batz bertzekoa egingen da.

-Azterketaren zati guztietan nota minimo bat atera beharko da ebaluazioa gainditzeko:

1. zatian: 2 puntu

2. zatian: 3 puntu

-Azterketetan egindako huts egiteak justifikante medikua beharko du; horrela ez bada, ikaslea errekuperazioara joango da.

-Azterketa batean, dena delako zatian, ikasle bat kopiatzen harrapatzen bada, ebaluazioa suspendituko du.

BERRESKURAPEN PROZEDURAK ETA EZ-OHIKO FROGA.

Ebaluaketa bakoitzak bere berreskurapena izango du eta arratsaldean egiten saiatuko da. Bi berreskurapen mota egongo da:

-Azterketa suspenditu zuten ikasleek zati guztiak egin beharko dituzte (terminoak eta galderak).

-Azterketa gaituta izanda ebaluazioa suspenditu zutenek (zati batean minimora ez heltzeagatik), zati horren azterketa egingo dute. Nota hori gehituko zaie bertze zatiaren notari eta hori izango da berreskurapenaren nota.

-Berreskurapenaren nota azterketan ateratakoa izango da. Norbaitek nota igotzeko berreskurapenean aurkeztu nahi izango balu aukera izango du, beti ere azterketa osoa egingo duelarik.

Berreskurapena gaitutako ez balitz, maiatzeko ez-ohiko frogan berreskuratu beharko da derrigorrez. Hirugarren ebaluaketaren berreskurapena ez-ohiko frogan sartuko da (beti ere zuzendaritzak ezartzen duen egutegiaren arabera). Ekainean egingo den ez-ohiko frogan kurtso osoko materia sartuko da.

Nota globala jartzeko 3 ebaluazioen bataz-bestekoa egingen da, ikasleek ebaluaketa guztiak gaituta izanda.

KURTSO ONA IZAN!!!